

Bermeoko gazteak eta euskara

- Lekeitioko egoerarekin
alderaketa -



Jone Aboitiz Barrena

Tutorea: **Kike Amonarriz Gorria**

EDUKIEN AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
2. Hurbilpen teorikoa	
2.1. Euskalkiak	6
2.2. Mendebaldeko euskalkia	7
2.3. Tarteko hizkera (Busturialdea)	9
2.4. Bermeoko euskararen egoera	12
2.5. Hizkuntza-aldaketa eta kode-alternantzia	14
2.6. Gazte-hizkera	15
3. Lanaren helburua eta metodologia	
3.1. Aztergaia eta abiapuntuko hipotesia	18
3.2. Metodologia	18
3.3. Lagina	19
4. Inkesten emaitzak, iritziak	
4.1. Herriko euskara: kalitatea eta kantitatea	20
4.2. Gazteen hizkera	21
4.3. Denek berdin egiten dute?	21
4.3.1. Zaharrak, helduak eta gazteak	22
4.3.2. Ikastetxeak	23
4.3.3. Sexua	24
4.3.4. Familia	24
4.4. Batua ala euskalkia?	25
4.5. Kultura-kontsumoa	26
4.6. Gaztelania	27

5. Ahozkoaren eta lagunarteko hizkeraren azterketa	
5.1. Transkribatzeko irizpideak	29
5.2. Azterketa xehatua	30
6. Ondorioak	
6.1. Bermeo	40
6.2. Bi herrien artekoak	42
7. Eranskinak	44
7.1. Hitzunen fitxak	
7.2. Galdetegia	
8. Bibliografia	51

1. SARRERA

Bermeo edo bertako herritarrek esaten duten bezala *Bermio* eta Lekeitio edo *Lekitto* Bizkaiko kostaldeko udalerrri euskaldun bi dira. 35 bat kilometroko tartea dago herri baten eta bestearen artean, hala ere, badago herri biak lotzen dituen zerbait: bizimodua. Itsasoari, portuari eta arrantzari hertsiki lotuta bizi izan dira beti biak ala biak, eta horixe izan da, hain zuzen, bai Bermeoko, bai Lekeitioko diru iturri nagusia. Eta euskal portu garrantzitsu bi horietako komunikazio hizkuntza ezin zitekeen euskara ez den beste bat izan. Hala, Bizkaiko kostaldearen bihotzean dauden herriok, euskararen arnagunetzat hartu ohi dira, izan ere, euskaraz trabarik gabe bizitzeko aukera dago horietan eta, belaunaldiz belaunaldiko hizkuntzaren transmisio naturala ematen da. Hala ere, datu estatistikoek euskararen egoera ona dela adierazi arren, herriotan etxeko hizkuntzaren erabilerak nabarmen egin du behera. Horren erakusgarri, EUSTATetik ateratako datu hauek, etxean euskararen erabilera jaitsi dela erakusten dutenak:

	1991	1996	2006	2011
BERMEO	9.991 (%55)	9.601 (%55)	8.267 (%49)	7.479 (%44)
LEKEITIO	5.726 (%77)	5.445 (%77)	4.218 (%57)	4.653 (%62)

(<http://eu.eustat.es/> webgunetik hartua)

Era berean, Bermeo eta Lekeitioko kaleetan zehar geroz eta euskara gutxiago entzuteaz aparte, belaunaldi gazteen hizkeretan aldaketa nabarmenak jazo dira. Bermeo eta Lekeitioko gazteek euskara erabiltzen dute, baina, noiz, zenbat, nola eta norekin? Zer bilakaera izaten ari da herriotako hizkera? Zer iritzi daukate *bermiotarrek* eta *lekittarrek* euren euskarari buruz? Eta inguruko egoera soziolinguistikoaren inguruan? Tankera horretako galderei erantzuna bilatzen ahaleginduko gara eta, azterketa egiteko, Bermeoko hamar gazteren eta Lekeitioko beste hamarren hizketa jarduna zein iritziak hartuko ditugu kontuan.

Beraz, bi herri horietako egoera soziolinguistikoaz eta gazteen artean sortzen ari den hizkera berriaz mintzo dira orriok. Azterketa honen bidez, orain arte egindako ikerketa-lanak geurera ekarri gura izan ditugu eta, modu horretan, ikusi ea euskal txoko ugaritan ematen ari diren zenbait aldaketa Bermeo eta Lekeition ere gertatzen ari diren. Hala, teoriaren inguruko zenbait zertzelada emanda, praktikari helduko diogu. Azterketa aurrera eramateko, lan honetan tutore izan dugun Kike Amonarrizek proposatuta, lan paralelo bi egin ditugu: batetik, Jone Aboitizek Bermeoko gazte-hizkera aztertu du eta, bestetik, June Lauzirikak gazte lekeitiarren berbeta behatu du. Ondoren, bi herrien arteko alderaketa egiten ahaleginduko gara, Bizkaiko kostaldeko ahulgune eta indarguneak agerian uzteko.

Esan gabe doa, azterketa zehatzago bat egiteko ahaleginetan, hainbat lagunengana jo dugula. *Bermiotar* eta *lekittar* ugariren ahotsa dago jasota lan honetan eta, euren hizkera da azterketa egiteko adibidetzat hartu duguna. Eskerrik asko, beraz, behar honekin lagundu eta, gure galderak gogo handiz erantzun duten guztiei.

2. HURBILPEN TEORIKOA

2.1. Euskalkiak

Euskalkiak euskararen dialektoak dira, tokian tokiko hizkerak. Historian zehar hainbat sailkapen egin badira ere, hemen ez ditugu guztiak aipatuko. 2008an Koldo Zuazok (*Euskalkiak: euskararen dialektoak*, Elkar, 2008) egindakoari jarraituko diogu, eta azken sailkapen horren arabera, egun, bost euskalki ditugu. Era berean, euskalkiak azpieuskalkietan sailkatu zituen:

- **Mendebaldeko euskara**

- Sartaldekoa
- Tarteko hizkera
- Sortaldekoa

- **Erdialdeko euskara**

- Sartaldekoa
- Erdigunekoa
- Sortaldekoa

- **Euskara nafarra**

- Ipar-sartaldekoa
- Hego-sartaldekoa
- Erdigunekoa
- Sortaldekoa

- **Euskara nafar-lapurtarra**

- Sartaldekoa
- Sortaldekoa

- **Euskara zuberotarra**

Mendebaldeko euskalkiari dagokion eremua Bizkaia, Deba ibar gehiena eta Arabako Aramaio ibarra da; Bermeoko eta Lekeitioko hizkerak, beraz, mendebaldeko euskarari dagozkie.

2.2. Mendebaldeko euskalkia

Duela urte batzuk arte *bizkaiera* deitu izan zaio euskalki honi, baina *mendebaldeko euskara* izendapena zuzenagoa eta zehatzagoa da, izan ere, Bizkaian ez ezik, Gipuzkoako Debagoiena eta Debabarrena eskualdeetan eta Arabako Aramaio eta Legutio udalerrietan ere erabiltzen da.

Zuazoren arabera, (*Euskalkiak: euskararen dialektoak*, Elkar, 2008) mendebaldekoa dugu euskararik hedatuena, eta arestian esan bezala, hiru azpieuskalki bereizten ditu: **sartaldekoa** (Uribe-Kosta, Mungialdea, Txorierri eta Nerbioi ibarra, Zeberio, Arratia eta Orozko), **tartekoa** (Busturialdea eta Zornotza) eta **sortaldekoa** (Lea-Artibai, Durangaldea, Aramaio, Debagoiena eta Debabarrenako Mallabia, Ermua, Eibar eta Soraluze). Hori kontuan izanda, Bermeoko hizkera mendebaldeko tarteko euskararen barruan kokatuko dugu; Lekeitiokoa, ordea, mendebaldeko sortaldeko euskararen barruan.

Mendebaldeko euskararen bereizgarri edo ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Fonologia (ahoskera):

- Hitz askotan, **u** vs. **i**: *huri* / hiri, *hurun* / hirin, *ule* / ile, *urten* / erten / irten, *uger egin* / igeri egin, *uzen* / izen... Ez dakigu bi aldaeretatik zein den zaharrena.

- **-a** amaieradun hitzei **-a** artikulua eranstea: **-a + -a > -ea**: neska + -a > *neskea*, -**ea** horretatik, hizkeren arabera **-ia**, **-ie**, **-i** edo **-e** sortzen dira: *neskia*, *neskie*, *neski*, *neske*.

- Lau txistukariak bitara ekartzea: batetik, **s** eta **z > s** kontsonantean berdintzen dira; bestetik, **tz eta ts > tz** dira beti. Gipuzkoako iparraldeko herri askotan ere halaxe gertatzen da.

-Hitz askotan, gainerako euskalkietan **e** dagoenean, mendebalean **a** dago: *barri* / berri, *andra* / andre, *alkarte* / elkarte.

- Aditzetan, **g** mendebaldean: *erabagi* / erabaki, *jagi* / jaiki.
- *itz* > **tx**: (h)aritz > *aretx*, (h)aitz > **atx**, gaitz > *gatx*.
- *iz* > **x**: (h)aize > *axe*, goizean > *goxean*, eleiza > *elexa*.

Izen morfologia:

- Soziatiboa: **-gaz"** singularrean eta **-kaz** pluralean: laguna(ga)z eta lagunakaz. Pluraleko -kaz hori sartaldean sortaldean baino gehiago entzuten da. Sortaldeko hiztun batzuek -kin bakarrik erabiltzen dute, singularrean zein pluralean.
- Destinatioa: **-rantz(a)** sartaldean eta **-rutz"** sortaldean.
- Aditz izenak mugimenduzko aditzen osagarri direnean eta norabidea edo helburua adierazten dutenean, **-ten"** mendebal gehienean: afalten goiaz = *afaltzera goaz*, eitten noie = *egitera noa*.
- Partitiboa esapide batzuetan erabiltzen da: *kalerik kale, etxerik etxe, mendirik mendi* vs. *kalez kale, etxez etxe, mendiz mendi*.
- Sarritan, **onetan**, 'honetan' nahiz 'hauetan' adierazteko erabiltzen da, azentua gorabehera; pluralean, *oneitan* ere entzuten da. *Onék* eta *ónek*, *onégaz* eta *ónekaz*, *aretara* eta *áretara*, singularra eta plurala, hurrenez hurren.
- Izenordainak zehaztugabeak: **zeozer**, **nonor**, **nonoz** lakoak, eta horietatik eratorritako **zeozelan**, **nonogaz**, **nonondik** mendebaleko berrikuntza da. Dena den, **edozelan**, **edonor** eta **edonoiz** ere mendebalean esaten dira.
- Izenordain indartuak: **neu**, **(h)eu**, **zeu**, **gei**, **zeuok** vs. *neroni* / *nihaur*, *herori* / *hihaur*, *zerori* / *zuhaur*...
- Gaztelaniatiko *-ción* atzizkia > **-iño**: *erlazino*, *konfesino* (erdialdeko euskaran *konfesioa*, ekialdean eta Iparraldean, *konfesionea*).

Aditz morfologia:

Aditz laguntzailearen taula osoa, bizkaiera batuan.

-NOR-NORI-NORK

saileko adizkietan *eutsi* erroa: *deutsat* 'diot', *deust*'dit', *deusku* 'digu'... Aldaera askorekin.

- Antzinako idatzietan *ezan erroa ohikoa zen, baina egungo mendebaleko euskararen *egin*-ek ordezkatu du: *daigun* 'dezagun', *leikezu* 'dezakezu', *ekarri eixu* 'ekar ezazu', e.a.
- *Izan* iragankorreko orainaldiko adizkietan (dut, dute...), -o- eta -au-: *nik dot, hik don, zuk dozu, hak dau, guk dogu, zeuok dozue, hak dabe* (<*daue).
- *Izan* iragankorrekoetan (nuen, zuten...), -eu- > -eb-: *nik neban, hak eban (hark), hak eben (haiek)* baina hiztun gehienek *zuk zenduan, guk genduen, zuek zenduen*.
- NOR-NORI: *jat(a), jak/n, jako, jaku, jatzu, jatzue, jake*. Hasierako *j-*, sartaldean *y-*, erdialdean *dx-* eta sortaldean [x] igurzkari belarra ahoskatzen dute (gaztelaniazko *jamón* hitzean bezalako).
- *-io- aditzeko formak Mendebalean honela dira: *dinot, dinozu, dino*, e.a. Beste euskalkietan ez bezala, NOR-NORI-NORK sailekoak gorde ditu: *zuk niri dinostazu*.
- Partizipioak gaztelaniatik mailegu berrietan:
 - a) -ado > -au: *pentsau, akabau, amenazau* eta abar. Bestela da mailegu berriak ez direnetan: *barkatu / parkatu, bukatu, bekatu / pekatu*, eta abar.
 - b) -ido > -idu: *korrejidu, sentidu, mobidu / mogidu*, eta abar.

2.3. Tarteko hizkera (Busturialdea)

Busturialdeako euskara eta, era berean, Bermeokoa, mendebaldeko tarteko hizkeraren barruan sailkatzen dira; izenak berak argitzen duen bezala, bitarteko berbeta da, mintzaira horrek sartaldeko eta sortaldeko euskararen ezaugarriak ditu, beraz. Ez hori bakarrik, *tarteko hizkera* izenez ezaguna den eremuan ere herri batetik bestera alde handiak daude, eta Bermeo ez da salbuespen. Kostaldeko hizkerak muturrekoagoak izan ohi dira: nortasun handiko hizkerak, azentu eta lexikoari dagokienez, batez ere. Bermeoko berbetak, horrenbestez, bere ezaugarri propioez gain, askotariko bereizgarriak ditu: mendebaldeko ezaugarri komunak, sartaldeko bereizgarriak, sortaldeko eragina eta itsasbazterreko hizkerak izan ohi dituzten berezitasunak.

Hona hemen gure azterketako laginean aurkitu ditugun ezaugarri batzuk:

1.- Mendebaldeko ezaugarriak:

- 1) –a + -a > -ea (> ie Busturialdean): *euskerie*.
- 2) *u-* hitz hasieran: *urten*.
- 3) Txistukarien neutralizazioa: *gauze, etxien*.
- 4) *n* ondoren herskari ahoskabea mailegu batzuetan: *jente*.
- 5) Zenbait hitzetan *er > ar* egiteko joera: *bardin*.
- 6) Hitzak elkartzerakoan, *l*, *n* eta *r* ondoren ez da afrikatua ahoskatzen: *etor'san*.
- 7) Erdal *-(c) ión > -ziño*. Eta era berean, **-io-* adizkiak > **-ino*: *edukaziño barik, zer diñozu*.
- 8) Adberbioak mugagabeen edo partitiboan erabiltzen dira: *trankil ogon*.
- 9) Erakusleek erro bera dute singularrean eta pluralean: *honék (sing.) eta hónek (pl.)*
- 10) *edun* adizkietan *-o-* eta *-au-* erroak: *dot, dauelez*.
- 11) *-rik* morfema zenbait egituretan: *herririk-herri parrandan*.
- 12) NOR-NORI-NORK saileko adizkietan *eutsi* da erroa: *esan'tsut*.
- 13) Batzuetan *egin* erroa: *lekidiez*.
- 14) *-z* pluralgilea nagusi: *daskuz*.
- 15) Adberbioetan bukaerako *-n*: *zelan*.
- 16) Adberbio batzuekin *-to* atzizkia: *txarto*.
- 17) Aditz izena mugimenduzko aditzaren osagarri bada, inesiboan: *biharrien*.
- 18) *bi* zenbatzailea izenaren eskuin aldean: *neba bi*.
- 19) Erakusleak izenaren ezker aldean: *honek kontuek*.
- 20) *ari izan* egituraren ordez, *ibili*: *zabiltzezie*.
- 21) *Urten* NOR sailekotzat hartzen da: *urten dot*.
- 22) Lexikoa: *bihar* 'lan', *bidar* 'aldi', *zelan* 'nola', *berba* 'hitz', *edade* 'adin'...
- 23) Aldaerak: *hamen* 'hemen', *barik* 'gabe', *gitxi* 'gutxi'...

2.- Bizkaiko ezaugarriak:

- 1) Aditz izenetan *-tuten*: *okurriduten*.
- 2) *-i* bokala *ni* saileko izenordainetan: *niretzat*.
- 3) *-txu* atzizki txikigarria: *lekotxu*.
- 4) Zehar galderetan *ba-*: *hauna etorko banaien pregunte dosten*.

3.- Sartaldeko azpieuskalkiko ezaugarriak:

- 1) Partizipioetan *-i* galtzeko joera: *etor zan, ekar nauen*.
- 2) Pluralean soziatiboa *-kaz*: *bidxekaz, mutillekaz, beste herri batzukaz konparata*.
- 3) Hurbiltze adlatiboan *-rantz(a)*: *erderarantz gidxau urreratuten da*.
- 4) Ablatiboan denbora balioa duenean *-rik* atzizkia: *pasa dan urterik dau kanpuen*.
- 5) Adizki trinko gutxi

3.-Sortaldeko azpieuskalkiaren eragina:

- 1) Hiatoetan:

/i + a, e, o / artean epentesia: alde handidxe dau, familidxen arabera.

/e + a, e, o / > i : bestie, kalie.

/o + a, e, o / > u: antzerakue, tonue, itsosokue, nire gurasuek.

4.- Bermeoko bereizgarriak: ezaugarri hauetako batzuk baliteke Bermeon ez ezik, Busturialdeako edota ipar-mendebaldeko beste eremu batzuetan ere egitea.

- 1) Azentua azken silaban dago gehienetan: *Bermiokó*.
- 2) */j/* hitz hasieran, sabai aurreko afrikatu ozen ahoskatzen da, salbuespena */x/* "Jainko": *juten*.
- 3) *Ahal*-en orde, *bazin* erabiltzen da batzuetan: *bazin'jot*.
- 4) Kausazko perpausak egiteko morfema *-gatik > -txik(o)*: *zeitxiko*.
- 5) Gaztelerazko *-ado* partizipioa *-a* egiten da: *kanta*.
- 6) Partizipioa *-adu* denean, *-ten* erabiltzen da aditz izena egiteko: *kantaten*.
- 7) Aditzetan, iraganaldiko 3.pertsonetan *z-* da *nor*-en ezaugarria: *zauen*. Mendebalde gehienez, \emptyset da morfema 'eban'.
- 8) Lexikoa: *atakontu* 'badirudi', *atrapa* 'harrapatu', *beringanie* 'zorua', *matxue* 'oso handia', *fuetak* 'zuziriak', *bekerekie* 'ardia', *aidxubetak* 'lokarriak', *guleridxek* 'gozokiak' e.a.
- 9) Aldaerak: *idxen* 'igo', *auntxek* (> ontxe) 'orain', *ezan* 'izan', *zillo* 'zulo' e.a.

2.4. Bermeoko euskararen egoera

Bermeo Bizkaiko kostaldean dago, Busturialdea eskualdean (Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Muxika, Mundaka, Murueta, Nabarniz, Sukarrieta). Udalerrri hori Matxixako lurmuturraren eta Urdaibai Itsasadarraren artean kokatuta dago eta, era berean, Sollube mendiaren magalean. 2011ko errolda-datuen arabera, 16.986 biztanle inguru bizi dira Bermeon, Urdaibai Biosfera Erreserbako herri jendetsuena da, beraz. Herritarren %95 hirigunean bizi da, eta, gainerakoak hamar auzotan banatuta: Arane, Artika, Agirre, San Andres, Almika, Arranotegi, San Migel, Demiku, Mañu eta San Pelaion.

Hurrengo mapak Bermeoren kokapena zehazten lagunduko digu:



Soziolinguistika arloari erreparatuz gero, 2011ko azken datuen arabera, biztanleen %71 da euskalduna: 12.025 “euskaldunak”, 2.481 “ia euskaldunak” eta, “erdaldunak”, berriz, 2.036. Hala ere, euskaldun aktiboen kopurua, bestelakoa da, izan ere, azken urteotan beherakada izan du euskararen erabilpenak eta, erroldako datuek erakusten dutenez, egunetik egunera jaisten ari da. Hona hemen EUSTATetik aterata, 2011ko erabileraren inguruko datuak:

Etxean erabiltzen duten hizkuntza:	Bizt.
EUSKARA	7.479
GAZTELANIA	6.443
BIAK	2.688
BESTEREN BAT	376

(<http://eu.eustat.es/> webgunetik hartua)

Ikastereduei dagokienez, Bermeon hiru eskola daude (Eleizalde ikastola, karmeldar ikastetxea eta eskola publikoa) eta, egun, hiru eskoletan, D eredia baino ez da eskaintzen. Horrenbestez, atzerritarren seme-alabak ere euskaraz eskolatuak izan ohi dira eta, hori dela eta, integrazio linguistikoa erabatekoa da belaunaldi gazteen artean.

2.5. Hizkuntza-aldaketa eta kode-alternantzia

“Aldaketa” egungo linguistikaren oinarrizko kontzeptuetako bat da; izan ere, hizkuntzak bere-berea du etengabe aldatzea. Lengoiak amaigabeki eraldatuz doaz, eta era guztietako aldaketak pairatu ohi dituzte: aldakuntza fonetikoak, morfologikoak, lexikoak e.a. Hizkuntzak antzaldatzen diren modu berean, hizkerek ere, belaunaldi batetik bestera, bilakaera jasaten dute ezinbestean; eta hiztun guztiok eraldatzen dugu hizkuntza nork bere egoerara egokituz, esaerak dioen legez, dabilen harriak ez du goroldiorik izaten.

Aldaketa horiek, ordea, ez dira kasualitatez gertatzen; Jean Aitchison maisuaren esanetan, faktore soziolinguistiko zein psikolinguistikoak dira hizkuntza-aldaketak gertatzearen erantzule. Hizkerek jasaten duten bilakaera hori, gainera, naturala da, eta ezin liteke saihestu. Geurera etorrita, bi dira euskararen bilakaeran eragina izan duten baldintza nagusiak:

Batetik, 60ko hamarkadan hasitako biziberritze sasoiak eta 1968an sorturiko euskara batuak eragina izan dute tokian tokiko hizkeren garapenean. Orduz geroztik, Euskal Herriko hizkuntza hezkuntzan, hedabideetan, administrazioan, literaturan e.a. sartu da. Hala, euskal berba ugari erdal ordainen mesedetan galdu diren moduan, beste hitz asko jantzi eta apaindu egin dira, euskara “garbi” edo batuagoa lortze aldera.

Bestetik, euskararen ofizialtasunik ezak eta erdararen jazarpenak ere badaukate eragina. Euskal Herria bezalako herrialde elebidunetan, hizkuntza-ukipena deritzona gertatzen da, hots, bi hizkuntza (gure kasuan euskara eta gaztelania ala euskara eta frantsesa) lurralde berean elkarbizitzen ari dira. Joshua Fishman soziolinguistaren esanetan, egoera horietan ohikoa da hizkuntzak bata bestearekin nahastea, izan ere, lengoiak ez dira isolatuak eta elkar eragiten dute. Hala, hizkuntza-ukipenaren ondorioetako bat da hitz egiteko orduan bi hizkuntza edo gehiagotako hitz zein egiturak nahastea, eta fenomeno horri *code-switching* edo *kode-alternantzia* deritzo.

Halaber, Euskal Herriko hizkuntza-politikak euskarari merezi duen balioa aitortzen ez diola kontuan izanda, are normalagoa da erdaratik edatea. Horrenbestez, belaunaldi berriek geroz eta joera handiagoa daukate gaztelaniara jotzeko. Lan honetan fenomeno horrek, kode-alternantziak, Bermeoko eta Lekeitioko gazteengan duen eragina ikusiko dugu.

Azterketa horretarako, Inma Muñoak bereiziriko kasuak hartuko ditugu aintzat:

a) Kode-alternantziak:

1. Makulu-aldaketa: Beste hizkuntza bateko makuluak sartzea hizkuntza batean egiten ari den solasaldian.
2. Perpausen arteko aldaketa: Esaldi edo perpaus bakoitza hizkuntza batean egitea.
3. Perpausen barneko aldaketa: Perpaus edo esaldi berean kode bat baino gehiago erabiltzea.

b) Maileguak: Kode-alternantziak ez bezala, maileguak beste hizkuntza bateko elementuak izan arren, xede hizkuntzaren maila guztietan egokitzen dira.

c) Kalkoak: Hizkuntza batek beste baten eredutik berera egokitzen duen egitura okerrei deritze.

2.6. Gazte-hizkera

Gazte-hizkera gazteek euren artean komunikatzeko erabili ohi duten mintzaerari deritzo; erregistro horrek belaunaldi helduengandik bereizten ditu. Kike Amonarrizen esanetan, gainera, ez dago gazte hizkera bakarra, gazte hizkera asko dago, errealitate soziolinguistiko bezainbeste.

Geurera etorrira, gazte-hizkeraren fenomeno oso nabarmena da, izan ere, gurean, egoera soziolinguistiko berezia dugu: batetik, euskara gaztelania eta frantsesarekin ukipenean dago; bestetik, euskalkien eta euskara batuaren arteko aurkakotasuna

daukagu. Hori dela eta, gurean bezala, hizkuntza-ukipena dagoen kasuetan, gazte-hizkera are nabariagoa da, gazteen artean hizkuntza-ordezkapena begi-bistakoa delako.

Mintzaira hori hizkuntza arautuaren aurka sortu ohi da, erabilera informalerako. Amonarrizen (2008) arabera, hizkera transgresiboa da, erregelen kontra joan eta botere hizkuntzarengandik urruntzea duelako helburu. Horrenbestez, hizkera horrek funtzionalitatea bilatzen du; bat-batekotasuna eta adierazkortasuna dira ezaugarri nagusi. Orain arte ahozko berriketan nagusitu bada ere, teknologia berrien garapenaren ondorioz, idatzizko jardunera ere zabaldu da. Arestian aipatu bezala, munduko hizkuntza guztietan gertatzen den fenomenoaren denez, gazte-hizkerak bereizgarri komunak izan ohi dituzte lengoia guztietan. Amonarrizek hurrengo joerak nabarmentzen ditu, besteak beste:

- Hizkuntza egituren erabilera ezegokia
- Aldaketa sakona aditzaren paradigman
- Erdararen interferentzia etengabea
- Lexiko ordezkapena
- Tradiziorik gabeko euskararen erabilera ez zuzenak

Ezaugarri horiek hizkuntzaren maila guztietan aurki daitezke (lexikoan, morfologian, sintaxian, fonetikan...).

Batzuen esanetan, Euskal Herrian, gazte askok aurkakotasun-jarrerari eusteko, euskara arautua alde batera uzten dute eta erdarara jotzen dute. Hala, gaztelaniaren edo frantsesaren eta euskararen *pidgin* moduko batetik gertu legoke gazte-hizkera, *euskañola* edo *frantseuskara* deitu ohi diote askok. Kike Amonarrizen esanetan euskarazko lagunarteko gazte-hizkerak honako ezaugarri hauek ditu:

- Euskara nahasia da:
 - Adierazkortasuna lortze aldera, euskara eta erdara nahasten dira (esamoldeak, hitzak, egiturak e.a.).

- Batua eta euskalkiak nahasten dira.
- Herri bakoitzean forma linguistiko berriak sortu ohi dira.
- Akatsak oso modu naturalean onartzen dira hizkera kolokialetan.
- Norberarena ez den beste euskalkiak tartekatze joera.
- Ipar eta Hegoaldeko aldea geroz eta handiago da, iparraldeak frantsesetik edaten baitu eta hegoaldeak, berriz, gaztelaniatik.
- Euskalkiak adierazkortasuna lortzeko bide bezala erabiltzen dira, baina modu partzialean. Hizkera tradizionala arbuiatu egiten da sarritan.
- Euskarazko argot berriaren aztarnak anekdotikoak dira.

3. LANAREN HELBURUA ETA METODOLOGIA

3.1. Aztergaia eta abiapuntuko hipotesia

Busturialdea eta, batez ere Lea-Artibai, Euskal Herriko eskualde euskaldunenatarikoak izanagatik ere, Bermeo eta Lekeitio oraingo honetan ez dira salbuespen, eta hango euskarak ere bilakaera pairatu duten berbeten zakuan sartzekoak dira. Aldaketa horiek geroz eta nabarmenagoak dira; eta lan honen helburua da aldakuntza orokor horiek erakustea: kode-alternantziarik baden gazteen lagunarteko hizkeran, gaztelaniaren zein Euskara Batuaren eragina e.a. Horrez gain, azterketa osoago bat egite aldera, bermeotarrek eta lekeitiarrek euren egoera soziolinguistikoaren inguruan daukaten iritzia biltzen ahalegindu gara: zer iritzi duten euren hizkerari buruz, gaztelaniarekin duten lotura norainokoa den euren ustez e.a.

Lan hau egiteko, eremu euskaldunetan geroz eta hedatuago dagoen hipotesia hartu da abiaburutzat: gazteen artean, hizkera berria sortzen ari da, erdararen zein euskara batuaren eragin nabarmena dituen. Horrenbestez, behar honen bukaeran Busturialdean eta Lea-Artibain hipotesi hori betetzen den ala ez azalduko dugu. Era berean, bi herrien arteko alderaketa egiten ahaleginduko gara, Bizkaiko kostaldean gertatzen ari den hizkera-aldaketa erakusteko eta, gerora begira, gure lana zonalde horietako lan-plangintzetarako abiapuntu izan dadin.

3.2. Metodologia

Gazte-hizkeraren azterketa hau egiteko, Bermeoko eta Lekeitioko hiztun gazteak behatu, eta lagunarteko diskurtso naturalean talde horren diskurtsoari izaera ematen dioten ezaugarri linguistikoak aztertu dira. Hala, lau grabazio egin dira, bi Bermeon eta bi Lekeition. Hiztunen jarrera ahalik eta zintzoena izan zedin, amaiera arte ez dute jakin lanaren benetako helburua zein den. Ikerketa soziologiko bat egiteko beraien iritziak entzun nahi zirela azaldu zitzaizkien, horretaz aparte euren hizkera behatuko zela esan barik. Solasaldia aurrera eramateko, aurrez prestatuturiko galdera-sorta egin zaie

elkarrizketatuei hainbat gairen inguruan: euskara zenbat erabiltzen duten, Euskara Batua edota euskalkiak zein kasutan erabiltzen dituzten e.a.

3.3. Lagina

Ikerketa egiteko bi eztabaida taldez osaturiko lagina aztertu da herri bakoitzean. Partaide guztiak 20-25 urte bitartekoak dira, eta talde bakoitza lauzpabost lagunek osatu dute. Laginaren gainerako ezaugarriak ez dira alde zuzenetik finkatu (ohiko harremanetan zein hizkuntza joera duten e.a.). Horrenbestez, bi herrien artean osaturiko lau taldeetan askotariko ezaugarriak dituzten gazteak bildu dira: sexu bietakoak, eskola edo ikastola ezberdinetan ibilitakoak, familia erdaldun zein euskalduna daukatenak e.a. Helburua izan da ahalik eta talderik naturalenak sortzea, beren baitako heterogeneotasun osoa onartuz.

Bermeoko azterketa egiteko lagina herriko hamar gazteek osatu dute. Horietatik bat Ordizian jaio zen arren, hamasei urte daramatza Bermeon eta, beraz, erabat integratuta dago, linguistikoki zein beste arlo guztietan. Adinari dagokionez, ia guztiak 22 urte daukate, bik 23 urte eta bakarrak 25. Taldea sexu bietako gazteek eratu dute eta, herriko hiru ikastetxeetan ibilitakoak dira (Eleizalde ikastolan, karmeldar ikastetxean eta eskola publikoan). Familien jatorriari dagokionez, askotariko ezaugarriak dituzte: hiru gazteren gurasoak bermeotarrak dira; beste bosten gurasoetariko bat bermeotarra da eta bestea, aldiz, ez; beste biren aita zein ama Bermeotik kanpo jaioak dira. Dena den, hamar gazteek askotariko ezaugarriak dituzten arren, guztiak antzeko perfil linguistikoa daukate. Hamarrak moldatzen dira oso ondo euskaraz eta, erabili batzuek gehiago eta besteek gutxiago egiten badute ere, aho batez onartu dute euskara bultzatzearen aldekoak direla.

4. Inkesten emaitzak, iritziak.

4.1. Herriko euskara: kalitatea eta kantitatea

Bermeoko gazteek diote euren euskara, kalitate aldetik, euskara jatorra dela, baina erdarakadez josita dagoela. Batzuen ustez, inguruko herrietan (Gernika, Ondarroa, Lekeitio aipatu dituzte) baino txarrago egiten ei da (erdarakadak, asmatuiko adizkiak e.a. direla eta). Beste batzuen iritziz, ordea, betidanik izan da horrelakoa herriko euskara eta horregatik ez deritzote kalitate txarragokoa denik, hainbatek adierazi dute naturala eta polita dela herriko hizkera, inguruko herrietako hizkerarekin edo euskara batuarekin alderatuta. Ulermena izan da ia guztiek aipatu duten beste kontu bat, Bermeoko hizkera ez ei da erraz ulertzen inguruko herrietan, oso azkar hitz egiten delako eta berbak laburtzeko ohitura izugarria dagoelako.

Kantitate aldetik, gazte gehienek adierazi dute alde handia dagoela belaunaldien artean. Belaunaldi zaharrenek euskaraz baino egiten ez duten bitartean, 50 urtetik beherakoek erdarara jotzeko ohitura daukatela esan dute. Gainera, zenbaitek adierazi du erdara gehien 16-17 urtetik 23-25 urte bitartekoen artean entzuten dela. Batzuek adierazi dute Bermeon Bizkaiko herri askotan – Mungian edo Bilbo inguruan, esate baterako – baino euskara askoz gehiago egiten dela. Hala ere, Bizkaiko kostaldean edo Bermeo inguruan kokaturik dauden beste herri batzuekin alderatuta (Gernika, Lekeitio, Ondarroa e.a.), Bermeon oso euskara gutxi entzuten ei da, geroz eta gutxiago. Hona hemen zenbait iritzi:

- (...) maketuk ezkara, baie... erderakadak bai sartzin'duz.(...) ta euskerie galtzin dau.
- Oso sarratue da, edonok eztosku ulertuten. (...) ta erderakadak dau beteta, beste herri batzukaz konparata (...) unibersidadien eztostie itzitxen bermiotarrez eitxen, ze estostie ulertuten, ez andereñuek ez beste danak.
- Bermioko euskerie? Askoz naturalaue eta politxaue, euskara batua eta beste batzune baño.

4.2. Gazteen hizkera

Bermeoko gazteen hizkeraz galdetuta, ia denek esan dute asko galdu dela, kalitate zein kantitate aldetik. Guztien ustez, belaunaldi zaharrek, zenbait erdarakada erabili arren, “garbiago” hitz egiten dute; gazteek, berriz, hizkuntza “zikintzeko” ohitura handiagoa ei daukate. Gainera, baten batek esan du Bermeoko lexikoaren parte handi bat galtzen doala, gazteek hitz eta esaera ugari erabiltzeari utzi diotelako (*aidxubetak* ‘oinetakoen lokarriak’; *guleridxe* ‘gozokiak’ e.a.). Guztiek adierazi dute ohikoa dela gazte batek adineko batekin hitz egin eta batak besteari gauza ugari ez ulertzea. Zenbaiten ustez, gazteen euskara, kalitate aldetik, ez da txarragoa, ezberdina baizik. Hori esan dutenen arabera, egungo gazteek herritik kanpora joateko ohitura handia dute (ikastera, parranda egitera e.a.), eta horrek eragin zuzena omen du hizkeran. Batzuek aitortu dute inguruko herrietako hizkeraren lexikoa zein tonua berenganatu dutela, herriko euskararen kaltetan.

Kantitateari dagokionez, guztiek esan dute gazteen artean geroz eta euskara gutxiago egiten dela; egiten den apurrak, gainera, gaztelaniaren geroz eta eragin handiagoa omen du (perpausen egituretan, hiztegian e.a.). Era honetako kontuak esan dituzte:

- *Atsuek diez ondo eitxen dauienak bermiotar garbidxe (...) gaztiek gero erderakadak sartzin duz.*
- *Herriko euskerik asko galdu dau kantidade ta kalidade aldetik. (...) bermiotarra izanikue eta gaur egun dana... eztako zerikusirik.*
- *(...) Zaharrak bai, baie gaztiek para nada. Gure zonakukaz konparata gitxiau eitxen da.*

4.3. Denek berdin egiten dute?

Bermeon guztiek berdin hitz egiten ote duten galdetuta, denek erantzun dute ezetz, baina bakoitzak gauza bat nabarmendu du: adin desberdinen arteko aldea, familiaren

araberako aldea edo unibertsitatera joan direnen eta herritik irten ez dutenen arteko aldea, adibidez.

Ondoko puntuetan, euskararen erabilera edo kalitatea baldintzatzen duten faktore nagusiak nabarmenduko ditugu:

4.3.1. Zaharrak, helduak eta gazteak:

Gehienen esanetan, adina da Bermeoko euskararengan gehien eragiten duen faktoreetariko bat. Belaunaldien artean, euskararen erabilerari dagokionez, alde nabarmena dagoela adierazi dute. Zaharrenek euskaraz barra-barra egiten ei dute eta, erdarakada batzuk erabili arren, euskara jatorra omen daukate. Euren esanetan, zaharrek erabiltzen dituzten erdarakadak guztiz errotuta daude herriko hizkeran (*bentanie, sillie* e.a.) eta ez dira hitz arrotzat hartzen. 20-50 urte bitartekoek, berriz, erdarara jotzen dute etengabe: gaztelania hutsean aritzen dira askotan, euskara erdararekin tartekatzen dute, edota euskaraz egin arren, euren hizkera erdarakadez (*flipe, jarto* e.a.) josita dago. Gaztetxoek (15-17 urtetik beherakoek), aldiz, euskara asko erabiltzen ei dute (dena den, geroz eta gutxiago horiek ere), baina horien hizkera oso ezberdina da helduen euskararekin alderatuta (Euskara Batuaren eta gaztelaniaren eragina nabaritzen zaie).

- *Zaharrak gehidxau eitxen dauie, baie ez hobeto, diferente. (...) sardiñeruauek diez.*
- *Ezta pentsa bez, gaztiak euren espresioñuek dakoie (...) gaztetxu bet dau berbetan 40 urteko bategaz eta, horrek esango'tso "ze osti da hori!"*
- *O sea, zuez agure bategaz berbetan ta erdidxe etsazu ulertuten.*
- *Zaharrak diñogunien...nik pentsaten dot euskeraz gehidxau eitxen dauela 60 edo 60 eta piku urtetik gora. Baie 30 urtetik 50era-edo, erderaz eitxen da gehidxau.*

4.3.2. Ikastetxeak:

Ikastetxeei dagokienez, Bermeon hiru eskola daude: Eleizalde ikastola, karmeldar ikastetxea eta eskola publikoa; egun, A eredurik ez da eskaintzen inon (orain dela urte batzuk karmeldar ikastetxean bai) . Ikastolan bizkaiera da eredutzat hartzen duten hizkera, karmeldar ikastetxean, berriz, bizkaiera eta batua irakasten dituzte (adinaren arabera), eta eskola publikoan, ordea, euskara batua baino ez da erabiltzen. Gazte gehienek diote ikastetxe guztietan berdintsu hitz egiten dela, hala ere, aipatu dituzte zenbait ñabardura.

Guztien esanetan, karmeldar ikastetxean edo eskola publikoan ikasten dutenek erdaldunen fama ei daukate, baina hori, gaur egun, topiko hutsa omen da. Euren ustez, aipatu eskola bi horietara herriko atzerritar, familia erdaldunen seme-alabak joaten direnez, horrek eragina dauka hango ikasleen euskalduntasunaren irudian, baina, berez, ikastetxea ez ei da euskararengan eragiten duen faktore bat. Dena den, zenbaitek esan dute gaur egungo eta orain dela urte batzuetako egoerak ez direla berdinak. Batzuen aburuz, eurak ikastetxean zebiltzan garaian (duela zortzi urte edo), karmeldar ikastetxean, adibidez, A eredia eskaintzen zen; horrek eragin handia zeukan bertako ikasleen euskararen erabileran, guztiek euskaraz ez zekitelako eta, azken finean, hori oztopo bat izaten zelako harremanak euskaraz izateko orduan. Hala ere, egungo egoera, arestian aipatu bezala, bestelakoa dela diote. Gaur egun ez dute uste ikastetxea berez euskararen erabileran edo kalitatean eragiten duen faktorea denik; aho batez onartu dute herriko ikastetxe guztietan euskara bultzatzearen eta sustatzearen alde daudela.

- (...) dauz ikastolako batzuk erdera hutsien ibiltzen dizela.
- A ver, ikastolan euskerie bultzatuten dauie, baie ni Karmelitasetan nau praktiketan eta han be pillue.
- Nik uste dot gaur egun eztauela alderik. Dana da etxien zelan eitxen'zun.
- Hori topikue da. Karmelitasekuek maketun famie dakoie (...) baie ez, danok bardiñek.
- Karmelitasek erdaldun gehidxau dakoz igual. Baie euskaldunen artien nibel bardiñe, hor da beste eskolatan.

4.3.3. Sexua:

Gazte bermeotar gehienek ez dute hartzen sexua euskararengan eragiten duen faktoretzat. Ia gehienek adierazi dute mutilen zein nesken euskara berdintsua dela, batek izan ezik. Gazte batek adierazi du mutilek agian gaztelaniara jotzeko ohitura handiagoa dutela *guay*-ak izan nahian.

- *O sea neska batek eta mutil batek euskera bardiñe dakoie Bermion.*
- *Nik pentsaten dot, gazteridxe ikusitxe, neskak gehidxau eitxen dauela berba euskeraz.*
- *Sexuek eztako zerikusirik euskerigaz.*

4.3.4. Familia:

Bermeotarren iritziz, familia da euskararengan eragiten duen faktore nagusia (adinaren aurretik). Azken urteotan etorkinen kopuruak gora egin duen arren, beti izan da herri immigrantea Bermeo, industrializazio garaian ere jende asko etorri zen-eta. Hori dela eta, familia erdaldun ugari dago Bermeon eta, etxe askotan gaztelania (edo beste hizkuntzaren bat) da ama-hizkuntza. Gaur egun, kanpotar horien seme-alabak euskaraz eskolatuak izan ohi dira (A eredurik inon eskaintzen ez delako), eta belaunaldi gazteetan integrazio linguistikoa, beraz, erabatekoa da. Hala ere, gazteen esanetan, nabarmena da familia erdalduna eta familia euskalduna daukatenen arteko aldea, euskararen kalitate eta kantitateari dagokionez. Aipatu dutenez, koadrila ia guztietan dago ama edo aita (edo biak) erdalduna duen norbait. Hala, horrek eragin handia dauka gazteak erdarara jotzeko orduan, euskaraz inoiz hitz egiten ez duen hori aurrean baldin badago (euskaraz jakin badakien arren), askok erdara erabiltzeko erabakia hartzen dute-eta. Gainera, gurasoak bermeotar euskaldunak izanda ere, gazteek esan dute aldea dagoela etxean beti euskara egiten dutenen eta noizbehinka erdara erabiltzen dutenen artean, kalean egiten dena argi eta garbi etxeko isla dela diote.

- *Bakotzak beran etxeko euskerie dako. (...) etxiek dako influentzi gehidxen.*
- *(...) dana da etxien zelan eitxen'zun.*
- *Gauzie, baldintzatuten dauena da: zeure ama hizkuntzie. Etxien ze hizkuntze eitxen'zu? Ba hauri erabilliko'zu gero kalien.*
- *Etxiek influentzidxe dako, ze por ejemplo nire amuma eztaez bermiotarra, eztoztez irakatsi Bermioko berba tipikuek. Ta askotan, aditzetan eta, badakot Gernikeko eragiñe.*
- *Ya, bai. Ohitxute zauz etxien eitxen, ordun kalien be erderiek urteten'tsu.*
- *Nik tendentzidxe dakot juten erderara, etxien eitxen dotelako. Baie nahiz eta etxien haulan eiñ, gero depende nogaz nauen, ba euskeraz edo erderaz eiñgo't.*

4.4. Batua ala euskalkia?

Bermeoko gazte guztiek aho batez onartu dute euskara batua ikastolan edo lanean baino ez dutela erabiltzen. Herriko euskalkia da lagunartean, sare sozialetan, SMSetarako e.a. erabiltzen duten hizkera; batzuek esan dute euskara batua inposatu nahiak, gainera, euskalkia gehiago indartzera eta erabiltzera daramatzatela. Guztiek Bermeoko euskara ulergaitza dela adierazi duten arren, kanpoko jendearekin harremanak izateko ere euskalkia erabiltzen dute (unibertsitateko lagunekin, sare sozialetan idazterakoan e.a.). Batzuek adierazi dute egoera horietan euskara “garbiagoa” erabiltzen eta mantsoago hitz egiten saiatzen diren arren, ez dutela sekula euskara baturik erabiltzen, faltsua iruditzen zaielako, ez delako beraien euskara eta ez direlako eroso sentitzen. Beste batzuek, aldiz, aitortu dute euskara batua ez, baina eredu batuagoa egiten ahalegintzen direla. Horrez gain, zenbait ikastetxetan bizkaiera irakasten badute ere, eredu hori ere ez dute eskolaz kanpo erabiltzen.

- *Nire kasuen, euskera batue eztoz eitxen ondo, ze ariñau bizkaieraz eiñ'jot klasien (...) gero batua de golpe emon (e)zan dostien. Baie bizkaieraz be eztoz eitxen, nik bermiotarrez, neure berbakaz.*
- *Aditzen kasuen askotan errezau datoztez euskara batuko aditzek, bermiotarrak baño. (...) Baie euskera batue klasetik kanpora eztoz eitxen.*

- *Batuagaz egidxe esan, tontue sentiduten nai. (...) eñ bi'dot ingelesez berba, ba bardiñ sentiten nai.*
- *Aparte, harro gauz geure euskerie okitxiégaz.*

Bermeoko gazteek euskalkia erabiltzearen arrazoi nagusiak honakoak dira:

- “Kolokialtasuna”: komunikazioa kalekoagoa izan dadin laguntzen du herriko hizkerak.
- Benetakotasuna: norbera den bezalakoa agertzen da nork bere hizkera erabilia.
- Jatortasuna: euskalkiak herriaren marka eskaintzen du; nortasun-ikur gisa erabiltzen da askotan herriko hizkera.

4.5. Kultura-kontsumoa

Musika zer hizkuntzatan entzuten duten galdetuta, erantzun hauek jaso ditugu: 8 lagunek denetarik eta 2 lagunek euskaraz eta ingelesez, gehienbat. Azaldu dute musika entzuteko garaian ez diotela hizkuntzari begiratzen, entzuten dutena guztiek entzuten dute musikalki atsegin dutelako. Irratia, aldiz, denek adierazi dute euskaraz entzuten dutela, Gaztea guztiek eta baten batek Bermeoko Itsuki Irratia ere bai.

Telebista zer hizkuntzatan ikusten duten galdetuta, aldiz, ia guztiek gaztelaniaz ikusteko ohitura dutela adierazi dute, baina ez gaztelania gurago dutelako, ETB1eko programazioa eskasa iruditzen zaielako baizik. Batek, berriz, azaldu du berak ETB1 beste kateak haina ikusten duela; beste batek azaldu du ez duela telebistarik ikusten, euskarazko zein gaztelaniazko kateetako programazioak penagarriak direlako.

Zer hizkuntzatan irakurtzen (literatura, egunkaria, aldizkariak e.a.) duten itaunduta, gehienbat gaztelaniaz irakurtzen dutela erantzun dute. Horren arrazoia argi adierazi dute: itzulpenak ez dituzte gustuko, beraz, bertsio originalen alde egiten dute. Dena den, bertsio originalak ingelesez (edo beste hizkuntzaren batetan) denean ere, nahiago dute gaztelaniaz irakurri, euskaraz baino; ia guztiek aitortu dute euskarazko itzulpenak

oso eskasak direla. Egunkari eta aldizkariak ere, irakurtzekotan, gaztelaniaz irakurtzen dituztela aitortu dute, etxeko ohituragatik-edo. Hala ere, noizbehinka euskaraz irakurtzen dutela ere adierazi dute batzuek, baina euskaraz irakurtzekotan, argi utzi dute: Euskal Herriko literatura baino ez.

- *Musikie edozelan, gustaten badast ba...*
- *Erderaz, ETB apurtxu bet penas dabil eta.*
- *Euskeraz dakotaz libro bi ta eztot ulertu ezebez. (...) tradukziñuek txarrak diez, asko aldatuten diz bertsiñuek, super esaldi luziek diez (...)*
- *Radidxue Gaztea, baie ez euskeraz dalako, sin más, musikigaitzik.*
- *(...) Gaztezulo tío? Hori zer da!!*

4.6. Gaztelania

Bermeoko gazte guztiek gaztelania asko erabiltzen dutela aitortu dute. Euren esanetan, erdararen eragina hitz solteetatik harago doa; adierazi dute lagunartean “euskañolez” berba egiten dutela. Gaztelaniaren eta euskararen arteko nahasketa etengabekoa dela diote eta, pertsona bakoitzak, norbere ohituren arabera (etxean nola egiten duen e.a.), euskara gehiago edo erdara gehiago egin ohi duela.

Gaztelania erabiltzeko arrazoi nagusi bi aipatu dituzte. Batetik, adierazkortasuna lortzeko gaitasun linguistikorik eza, hau da, adierazi nahi dena euskaraz nola esaten den ez jakitea. Bestetik, euskaraz ongi moldatzen ez den norbait aurrean izanez gero, erdarara jotzeko ohitura dagoela; hori sarritan gertatzen ei da.

Etxean, nork bere ohiturak dauzka. Batzuek euskara hutsean egiten dute eta beste batzuek, berriz, gurasoak (edo bietako bat) erdaldunak direnez, gaztelania erabili ohi dute. Gazteen esanetan, bai etxeko ohiturak bai lagunartekoak beste arlo guztietan islatzen dira, adibidez unibertsitateko lagunekin harremanak egiterakoan edo parrandan jendea ezagutzeko orduan. Batzuek nahiago dute kanpoko jendearekin harremanak euskaraz egin, gaztelaniaz ez direlako erabat natural sentitzen; beste batzuek, aldiz, aitortu dute gaztelaniaz erosoago sentitzen direla.

- *Konbertsasiño bardiñen dakuz, esaldidzek euskeraz ta esaldidzek erderaz.(...) koletillek be badakuz “por ejemplo”, “nose que” ta haulakuek.*
- *Koletillek pillo bat esaten’duz: “es que”, “ya”... (...) baie aparte euskañolez eitxen’du.*
- *Esaldi bardiñen bi hizkuntze sartuten duz beti.*
- *Esaldi osuek eitxen’duz erderaz. (...) edo, gauz euskeraz berbetan ta derrepente saltaten du erderara, normal-normal: “sí, porque a mi no me parece hori holan danik”, por ejemplo.*
- *Depende nogaz zauzen. Normalien erderaz eitxen dauen bategaz bazauz, erderaz eiñgo’zu, seguramente.*
- *Es que nik dakotaz esaldi batzuk euskeraz errezau urteten dastezenak eta beste batzuk erderaz.*

5. Ahozkoaren eta lagunarteko hizkeraren azterketa

5.1. Transkribatzeko irizpideak

Transkribatzerakoan, ortografia errespetatu da, ahal den neurrian, bederen. Izan ere, lan honen helburua gazte-hizkera aztertzea da, ez Lekeitioko ahoskera. Horrenbestez, ahalik eta transkripzio ulerterrazena ematen ahalegindu gara. Hona hemen horren gaineko zenbait ohar:

- Txistukariei dagokienez, Bermeon *s* eta *z* ez dira bereizten, eta *s* ahoskatzen dira biak. Gauza bera gertatzen da *tz* eta *ts* soinuekin, biak *tz-ra* neutralizatzen dira. Baina gure traskripzioan ortografia errespetatu denez, berba bakoitza dagokion letrarekin agertuko da: *zeu* (eta ez *seu*), *zabal* (eta ez *sabal*), *hutsik* (eta ez *hutzik*), *ikusi'tsut* (eta ez *ikusi'tzut*)...
- /h/ ahoskatu ez arren, beti agertuko da.
- Bustidurak adierazi dira: *dx*, *ñ*, *ll* eta *tx*-ren bidez: *ahalegindxu*, *baño*, *kuadrille*, *e(i)txen* e.a.
- /j/ fonema erabili da, bai sabaiaurreko afrikatu ahostuna, [dž], transkribatzeko (*jesarri*, *juten*, *Jone*); bai igurzkarri belar ahoskabea, [x], transkribatzeko (*jangoikue*, *ejenplue*). Aldiz, /dx/ fonema erabili da sabaiaurreko frikari ozena, [ʒ], transkribatzeko (*istoridxe*, *jantokidxe*).
- *-au* diptongoa adierazteko *-aw* erabili da.

Bestelakoak:

- Ezezkoak eta baldintzak elkartuta idatzi dira: *eztakizu*, *bazatoz*.
- 'ere', 'eta' edo antzeko partikulak bereizita agertzen dira, salbuespen bakarrarekin: *neuk*, *zeuk*, *geuk* + *be* < *neupe*, *zeupe*, *geupe*.
- Adizki perifrastikoak apostrofoarekin idatzi dira aldaketa fonetikoren bat baldin badago edo hizkiren bat galdu bada: *eiñ'zu*, *apurtu'zu*.
- Azentua ez da markatu.

5.2. Azterketa xehatua

Bermeoko gazteen jarduna aztertuta, gaztelaniaren interferentziak nonahi topa daitezke. Batetik, hona hemen lokailuen, hitz esanguratsuen edo tartekaturiko esaldien zenbait adibide:

1) Makulu-aldaketa:

- **ES QUE:**

- *Ba **es que** hauri, segun da etxien ta kalien ze influentzi dakozun (...)*
- ***Es que** pasaten da etsuiela ulertuten*
- ***Es que** askotan pasaten da eh*
- ***Es que** Goenkalen fana da!*
- ***Es que** nik dakotaz esaldi batzuk euskeraz erreza urteten dastezenak eta beste batzuk ba erderaz.*
- ***Es que** Gernikegaz konparaten bazun, ba bardiñ, baie (...)*
- ***Es que** karrerako librutan dauz esaldi batzuk (...)*

- **PORQUE:**

- ***Porque** espresakeran, askotan, esaldidxe erderaz urteten dostie*
- ***Porque** igual zaharrak eta eztiz urteten (e)zan horrenbeste kanpora*
- *Erdera asko eitxen zan **porque** bi eredu oten zien ta ikastolan ez.*
- *Orañ eztot pentsaten holan danik, **porque** orañ eztatoz kanpotarrak hona.*
- *Nik pentsaten dot baietz **porque** nire amuma ezta bermiotarra, gernikarra da (...)*
- *Idatzizkue gatxaue da, **porque** eurek eztakidxeie zelan pronuntzidxe ez “j” ez “dx” ez...*
- *(...) **porque** idatzikeran, astidxe dakoie leidu ta pentsateko.*
- *(...) **porque** kanpuen eitxen bazun bihar, ba batueraz.*
- ***Porque** Gerniken edo Mundekan tokaten badatzun (...)*

- (...) **porque** esaldi super luziek esaten diez.
 - (...) **porque** Bilbo erdaldunez beteta dau.
 - (...) **porque** Bermiok beti okin'jaus kanpoko familidxez eta.
- **BUENO:**
 - Beti ezan da erdera gehidxez eĩñ'jen eskolie, baie **bueno** nik zer esango'tsut...
 - **Bueno** baie hori leko askotan, Ondarrun eta Lekitxon ta be bai.
- **YA:**
 - Eta **ya** ba ezpazauzen ohitxute, eĩño'zu erderaz etxien, eĩño'zu lagunekaz...
 - Bizi guztidxe aurkezpenak bermiotarrez eitxen, ba **ya** gehidxez kostaten'datzu
 - Gure edadien bai igarten'zu, baie guretik bera **ya** ez.
 - **Ya**, hauri!
 - (...) allegaten zaranien puntora...**ya** galdu zara!
 - Gaztiek **ya** euren espresio propioek dakoiez.
 - Gure euskeriek **ya** gero ta erderakada gehidxez dakoz.
 - **Ya**, segun da zelako kalien bizi zaran.
- **TAL CUAL:**
 - Esaten'dulez, **tal cual**.
- **TÍO:**
 - Baie hori geure euskerie da **tío** ta aurrera erun bi'du.
- **A VER:**
 - Baie **a ver** haiñ txarto eitxen dot berba?
 - **A ver** igual ondarrutarrakaz ta Lekitxokukaz ta konparata, ba ez haiñbeste.
 - **A ver**, zer diñozu!
 - **A ver**, hori neuri be bai, baie esfortzu bet eĩñ bi'de!
 - **A ver**, azkanin klasera jun bazaran be, diferente da.
 - **A ver**, ikastolan euskerie bultzatuten dauie, baie ni Karmelitasetan nau praktiketan eta han be pillue.

- *Baie, **a ver**, igiri bentanie zaharrak be bai esaten dauie!*
- ***A ver** zuk ezu eitxen holan berba.*
- ***A ver** azkanien zuk biherrien bizkaieraz eitxen'zu, ze LHn bizkaieraz eitxen da.*

- **ASÍ QUE:**
 - *Atxitxek eztost ulertuten **así que** euskeraz, ulertu bai, baie berak berba...*
 - *Hamen iñok eztau eitxen batueraz, **así que** azkanien (...)*

- **DEPENDE:**
 - *Nik uste dot **depende** nogaz zauzen.*
 - *Igarri eitxen dot, **depende** nogaz nauen, harek personiek gehidxau eitxen badauen euskeraz ba (...)*
 - ***Depende** pertsonie (...)*
 - ***Depende** non eitxen'zun bihar (...)*
 - ***Depende** ze lekotan zauzen.*

- **NO?:**
 - *Hori aurrera erun bi'du, **no?***
 - *Nebie dakoizu, **no?***

- **CLARO:**
 - *Euskerie ligeteko erabiltzen dau, **claro!***
 - *Erderakada asko esaten'duz, ordun ba **claro**...*
 - *Ohitxute zauz, ordun **claro**, ba erderaz!*
 - *Ordun **claro**, nire gurasuek eztakidxeie euskeraz.*

- **O SEA:**
 - ***O sea**, zuez agure bategaz berbetan ta erdidxe etsazu ulertuten*
 - ***O sea** neska batek eta mutil batek euskera bardiñe dakoie Bermion*
 - ***O sea** inguruek etsu lagunduten euskeraz eitxeko igual*
 - ***O sea** idatzi bertan? Erderaz gehidxen bat.*
 - *Berba gatxak be bai, **o sea** ulertuteko....gatxak.*

- Ezauz eroso hori euskerie erabiltzen eta bermiotarrez eitxen'zu, **o sea...**
 - Nire atxitzek eztaki erderaz, **o sea** euskeraz bakarrik.
 - **O sea** euskerie pillo bat bultzatuten da, kanpotarran artien eta be bai.
 - **O sea** guretzako horrek gauzek normalak diez, egunerokuek!
 - **O sea** ulertuten'tsu, baie berak eztaki espresaten euskeraz.
- **NOSE QUE:**
 - Pentsaten da ikastolie, **no se que...** euskaldunauek, abertzaliauek dizela, baie ezkiez, danok bardiñek.
- **HOMBRE:**
 - **Hombre**, kalidade aldetik erderakada pillo bat dakuz.
 - **Hombre**, unibersidadien euskera batua erabili bi'zu bai edo bai
 - **Hombre**, niri Ikerrek esaten dot, "baie horrek zer gudau esan?"
- **POR EJEMPLO:**
 - **Por ejemplo** periodikue eta, erderaz.
 - **Por ejemplo** Jonegaz erderiek gitxitxen urteten dost, baie (...)
 - **Por ejemplo**, Hizkuntza Eskolan eta holan, erderakadak sartzie txarto dau.
 - **Por ejemplo** Ondarrutarrak eta arazo gitxiau okitxen dauie (...)
 - Geure zonan **por ejemplo**.
 - **Por ejemplo** 40 urte dakoiinak erderaz eitxen zaiuen ikasi ta guk euskeraz bizi guztidixen.
 - Nire amumak, **por ejemplo**, euskeraz askoz be hobeto eitxen dau erderaz baño.
 - **Por ejemplo** nire klasien dau jentie eztaquine euskeraz berbetan.
 - **Por ejemplo** aditzen kasuen (...)
 - **Por ejemplo** ondarrutarra, Naiagaz on da pillo bat urte, ba...
 - 'Yo flipo' edo 'jarana', **por ejemplo**.
- **VAMOS:**
 - Euskara batua ta baño askoz gehidxau, **vamos...**

- *Implantatiek euskara batua eztau gure esan hori euskerie esan bi'dela onena, **vamos!***
- *Sardiñeruauek diez: tonillue... **vamos!***
- *Tradukziño batzuk... **vamos**, ostikadie emoteko arpidxen!*
- **AL REVES:**
 - ***Al reves** be bai, zaharrak berba bat esatie eta gaztiek ez ulertutie.*
- **TAL CUAL:**
 - *Bai, neure amumagaz... **tal cual**, beti!*
- **EN PLAN:**
 - *Neskak gidxau eitxen dauie euskeraz, **en plan**...*
 - *Erderaz eitxen dau gehidxau, **en plan**...*
 - *(...) eta dana nahastaten dot, **en plan**...*
 - ***En plan**, kanpoko jentik esaten'tsune, gehi klasin ikasten'zun batua, ba...*
 - ***En plan** kalidade aldetik, aditzetan eta, Gerniken nik uste dot hobeto.*

2) Perpausen arteko aldaketa:

- *Bermiotarrez txo **¡Da juego, da juego!***
- *Azkanien ohitxu eitxen diez. **No les queda otra.***
- *Musikie? **De todo, english, spanish**...*
- *Tuenti dako zu? **A dios**...*
- *Eurek frantsesez eingo'stie, nik españoles... **La llevamos clara!***
- *Bermiotarrez. **Que se note!***
- ***Que te digan "que bonito es tu euskera"**. Askotan esaten doskuie!*
- *Erderaz... ba ez. **Todo regetonadas!***
- ***Latino es como más**... "ai, te amo...", **demasiau meloso**. Ta diño zu, ai ama mesedez, hau zer da!*

3) Perpau barneko aldaketa:

- Igual dako zu **la vena euskaltzale**.
- Ikasi dau euskaltegidxen **a rajatabla** dana.
- **Según**, igual dako zu **la típica frase** diñozune, hau erderaz hobeto.
- Euskaldunek gustaten badatzuzen, euskeraz **obviamente**, ezara hasko erderaz berbetan, **porque no pillas!**
- Non zauz **de fiesta**, non zauz?
- Euskaldunek gustaten badatzuzen, ba euskeraz, **no hay más!**
- Erdaldunekaz erderaz, **si no, no fluye la conversación...**
- Batua **de golpe** emon (e)zan dostien.
- Kostunbrie dakot... erderiek urteten dost **así, sin más, típico, de golpe**, euskeraz berbetan nauenien.
- Unibersidadien eta **se acabo**.
- Baie da igual, jentik esaten ezan dosten astiruau **y tal**, baie nik bermiotarrez beti.
- Ezkaralako fijeten euskal literaturan, **puede ser, no?**
- Zaharrak igual bai, baie gazteiek **para nada**.
- Aitor, zeu be **vas a donde lo de Jone?**
- Geuk eitxen' du gidxau, **con diferencia** ganera!
- Amumak eta atxitxek, **de toda la vida**, "erregalue".
- Ta **es más**, Ainhoa etorten dast eta esaten dot "txo zer eitxen' zu gernikarrez berbetan?"
- Bai, **porque** normalien eztaue eitxen eta eitxen dauenien, **la cagan!**
- Ikusten badoten beran arpi zuridxe, **como... hola qué haces?** Ba erderaz eingo'tsat.
- Batzukaz beti dako zu tendentzi gidxau euskeraz eitxen edo erderaz, **según** eta nor dan.
- Aitxek euskeraz daki, **lo que pasa que** ama badauen etxien, ba...
- Edo aditzetan, **tiendo más** horren mandara botaten.
- **Que viene a ser lo mismo**, baie bueno.

- Erderaz... **el idioma común.**
- Ta neuri imitxen dost mikrofonue, **directamente** jajajaja
- **De hecho** askotan diñot, ba erderaz ta **fuera, acabáramos!**
- Esan dosten, “Ze **coño** da ‘idxen’su’?”
- **Segun** ze herrigaz.
- Erderaz, **lo admito.**
- Dakotaz bi **lerdo** klasien, eztakidxeienak euskeraz idazten bez!
- **Mira que me jode** gernikarrakaz konparata txarrau esatie, baie haulan da.
- **Antzekoparecido**, baie Bermion kuadrille asko dauz eztauienak euskeraz ezer eitxen.
- Euren berbak **tiran más pal batua que pa las inventadas que hacemos nosotros.**
- **Tal cual, tal cual...** erderakadak!
- Hori bai, baie **eske joder!**
- Hori eztaue esaten, **ni de coña!**
- Idatzikeran, **puede ser**, baie berba eiñkeran... **ni de coña!**
- Nahidxau’zu zeure zonako lagun bet topa **en plan, mas de tu rollo, que** kanpoko nonor.
- **Bueno, si me lo planteo, bai!**
- Musikie? **Si me hace mover el esqueleto**, ni pozik nau, frantsesagaz be pozik!

4) Euskarazko egituren aldaketa:

i) Erdal sintaxiaren kalkoak:

- Hori ahal da ezan holan dala. (‘puede ser que sea así’)
- Ohitxure gehidxau dakot euskeraz eitxie erderaz eitxie baño.
- (...) dauz ikastolako batzuk erdera hutsien ibiltzen dizela.
- Guretzat payasulez da, **ez?**
- Konparaten bazarien bestiekaz (...)
- Pega eitxen da.
- Zauz nonogaz erderaz eitxen dauena berba eta... azkanien erderaz eiñgo’zu.
- **Gauzie da** eztauela eitxen berba, orduen ba klaro. (‘la cosa es que...’)

ii) Ergatiboaren erabilera okerra:

- *Gu baku.*
- *Hori eragiñ asko dako.*
- *Zeu jakingo'zu hobiau.*
- *Nik ondo konpondu nai euskeraz.*
- *Ni ezetuten doten jentie (...).*
- *Morroie igual eztau ulertuten.*

iii) Aditzen aspektuaren erabilera desegokia:

- *Ikusi'tsat ('ikusi dut')*
- *Estoskuie ulertuten ('ez gaituzte ulertzen')*
- *Hasikeran kostea eitxen da.*

iv) Amaierak:

- *Iritzis* (plur. -ak > -s)

Lexikoari dagokionez, bermeotarrek betidanik izan dute erdarakadak sarri erabiltzeko fama, baina, dena dela, horietako hitz asko errotuta daude herriko hizkeran eta berba jatortzat hartzen dira. Gure azterketako lagina behatuta, gazte-hizkeran aldaketak nabari dira hiztegiaren aldetik. Batetik, erdal kutsua daukaten berba ugari aipa daitezke, herriko berbetan erabiltzen ez direnak eta, beraz, gazte-hizkerari lotu dakizkiokeenak. Bestetik, hainbat erdarakada galdu egin direla esan daiteke, euskara batuaren edo inguruko hizkeren ordainen mesedetan. Hona hemen adibideak:

Erdararen eragina:

- Super:** *super txarto, super majuek, super politxe* e.a.
- Flipatu:** *flipe eitxen dauie, flipe eiñ'jot* e.a.
- Asako:** *asako erdaldun, asako eitxen da* e.a.

Euskara batuaren eragina:

Ukertuten dauie ('entendidu'); *erdipurdikue*; *nik uste dot* ; *ikasi* ('estudidxe'); *nabarmena*; *adibidez* ('por ejemplo'); *bultzatu eitxen da*; *egoerie* ('situasiñue'); *eragiñe* ('influentzidxe'); *oparidxe* ('erregalue'); *idatzi* ('eskribidu'); *nahiko* ('bastante'); *desberdintasun* ('diferentzi'); *nahiz eta etxien euskeraz eiñ* ('-arren'); *gai gara* ('kapaz'); *hurbilleko jentie* ('urreko jentie'); *aldatu* ('kanbidxe'); *saiatu* ('ahalegindxu'); *irakurri* ('leidu') e.a.

Gaztelaniaren eta euskara batuaren eragina zein lexiko kontuak alde batera utzita, herriko euskalkian bestelako aldaketak ere jazo dira. Bermeoko berbeta estandarretik kanpoko ezaugarri ugari aurkitu ditugu laginean, gazteek inguruko herrietako (Gernika, Ondarroa e.a.) hizkeren eraginez berenganatuak. Aldaketak deigarriak dira, izan ere, gazte gehienek egiten dituzte; horren arrazoiak asko izan litezke: unibertsitateko lagunen eragina, parrandan herritik kanpora joatearen eragina, kasu batzuetan gurasoen eragina e.a.

Hona hemen zenbait adibide:

Hasteko, herriko hizkera estandarrean, hiatoetan aldaketa batzuk egin ohi dira. Arau oso emankorra da, euskaratik sortzen diren edota erdaratik sartzen diren hitz eta egitura berrietan ere gauzatzen baitira aldaketa horiek:

-/e + a, e, o/ > ie: *tristie, anbientie, jentie* ...

-/o + a, e, o/ > ue: *itsosue, bertokue* ...

-/u + a, e, o/ ue: *flipaue, portue* ...

Gazteen artean, berriz, azken bokala galtzeko joera izugarria dago, Ondarroa inguruan gertatzen den legez. Laginean aurkitu ditugun adibide batzuk: *ordun, euskeri, azkanin, unibersidadin, extremeñuk, diferenti, gurasuk, kotxi, grupun, kanpun* e.a.

Bestalde, Bermeon, Hego Euskal Herriko alderdi askotan bezala, *i* eta *u* bokalen ondoren, *a > e* egiteko joera dago hitz askotan, baina morfema barruan ez araua betetzen, adibidez, 'izan' aditzaren ordaina *ezan* da. Gazteek, aldiz, herriko ohiko ordainaren ordezt, *izen* barra-barra erabiltzeko joera daukate, Gernika inguruko hizkeraren eraginez.

Ez hori bakarrik, Gernika eta Mungia aldeko eragina beste zenbait kontutan ere nabari da. Batetik, Bermeon ohikoa ez den moduan, *ar > er* egiteko joera zabaldu da gazteen artean *bidxer* (eta ez *bidxar*), *biherrien* (eta ez *biharrien*), *erretu* (eta ez *erratu*) e.a. Horrez gain, *au* diptongoa *eu* ahoskatzeko joera zabaldu da: *geuzek* (eta ez *gauzek*), *geur* (eta ez *gaur*) e.a. Azkenik, adizkien arloan ere ikusi ditugu estandarrak ez diren formak: *ipiñi* (eta ez *imiñi*), *hasi zen* (eta ez *hasi zan*), *eragiñe dekot* (eta ez *dakot*) e.a.

6. Ondorioak

6.1. Bermeo

Bermeo euskararen arnagunetzat hartzen bada ere, errealitatea eta teoria ez datoz bat eta, herriko gazteen artean, etxeko hizkuntza itolarrian dago. Herriko kaleetan zehar geroz eta euskara gutxiago entzuteaz aparte, gazteek aitortu digute euskaraz barik, “euskañolez” bizi direla. Euskal Herriko beste txoko euskaldun askotan bezala, euskararen kalitate zein kantitateak behera egin du Bermeon ere.

Erdararen presentzia da Bermeoko gazte-hizkeraren bereizgarri nagusienetako bat. Bermeotar gazteen diskurtsoari “gazte” kutsua ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira; garbi azaltzen da makulu, formula edo lexikoan, batez ere. Azterketa honetatik ateratako datuek erakusten dutenez, erdal hizkuntza erabiltzearen arrazoiak askotarikoak dira:

- Batetik, eta nagusiki: kontzientzia falta. Hau da, aukeran dago euskaraz ala gaztelaniaz berba egitea, eta inkontzienteki, gaztelania erabiltzeko ohitura zabaldu da Bermeoko gazteen artean. Ez dira kontziente erdara erabili eta euskara bazter uzteak ekar ditzakeen ondorioez.
- Horrez gain, beste askok erdarara jotzen dute adierazkortasun bila eta euskaraz hitz egitean izan ohi duten erosotasun faltagatik, izan ere, hainbatek uste dute gaztelania erabilia beren diskurtsoa formalagoa eta “seriagoa”-edo dela. Zenbait gazteren aburuz, euskara ezin da erabili gauza guztiez berba egiteko, hau da, hainbat alorretan, euskara ez dute erabilgarri ikusten, ez baitituzte gai jakin batzuez mintzatzeko euskarazko esapideak ezagutzen. Hala ere, ez dute beti gaztelaniara jotzen, euskal iturriko adierazkortasuna ere erabiltzen dute, euskara batuaren edo inguruetako hizkeren eraginez sorturiko gazte-lexikoa; hori alde positibotzat hartuko dugu.

- Azkenik, herrian erdaldun asko egoteak eragina dauka; hala, sarritan, horiek geure errealtatera moldatu beharrean (Ondarroan atzerritarrekin gertatzen den bezala), euskaldunak dira erdal mundura egokitzen direnak.

Gazte guztiek euskalduntzat daukate beren burua eta, iritzi batez onartu dute euskara sustatzearen eta bultzatzearen alde daudela. Dena den, gero praktikan ez dute hori betetzen, bada, erdarara kontrolik gabe jotzen dute eta, ez dute euren giro euskaldunari eusteko ahalegin berezirik egiten.

Kultura-kontsumoari dagokionez, euskarak ez dauka nagusitasunik; gazte bermeotarrek, oro har, gaztelaniaz ikusten dute telebista, irakurtzen dute e.a. Hala, hori gaztelaniara jotzeko arrazoietakoa bat izan liteke. Izan ere, beren kultur erreferentziak erdal jatorrikoak badira, errazagoa da horien inguruan berba egiteko gaztelania lehenestea.

Gazteen artean, euskararen erabilerak izan duen beherakada alde negatibotzat ikusten duten arren, euskararen kalitate-galera ez dute hain kontu larritzat hartzen. Bermeoko euskalkiari dagokionez, antzekoa da guztien hizkera – batzuk erdarara jotzeko ohitura handiagoa duten arren – eta, azterketa honek erakutsi duenez, hainbat aldaketa ari da pairatzen herriko euskara. Gazteek eurak hizkera itxi eta berezia daukatela dioten arren, ez dauka zerikusirik handirik belaunaldi zaharren euskararekin. Erdararen eragina alde batera utzita, Bermeoko gazteen hizkera eredu batuagorantz doa, bai euskara batuaren eraginez bai inguruko herrietako berbeten ondorioz.

Aurreko guztia esanda, Bermeon euskararen aldeko kontzientzia berpizteko beharra dago. Bermeoko Udaleko Euskara Saileko teknikariek horren alde behar eskerga egiten badute ere, denon ardura da hori; bermeotar guztiok daukagu zer ekarria euskararen biziberritzean; zeresanik ez gazteek, eurak dira herriaren etorkizuna-eta. Euskararen kalitatea zein kantitatea, biak krisi egoeran dauden arren, kantitatean jarri behar da arreta lehenik. Askozaz kezagarriagoa da gazteen artean gaztelania erabiltzeko zabaltzen ari den ohitura, erdarak gazte-hizkeran dituen interferentziak baino. Horretarako, beharrezkoa da: batetik, haur eta gazteen berba egiteko gaitasunean indarra jartzea eta, hala, adierazkortasun linguistikoa sendotuta, egoera hobetzea

espero da; bestetik, azterketa honetan ikusi dugun legez, gazte guztiak euskaldun sentitzen badira eta euskara sustatzearen alde badaude, kontzientzia piztu behar zaie eta euskara bazter uzteak ekar ditzakeen ondorio larriak ikusarazi.

6.2. Bi herrien artekoak

Bermeoko eta Lekeitioko gazteen iritziak eta berbetak aztertu ondoren, Bizkaiko kostaldeko herri bi hauen artean berdintasunak eta desberdintasunak aurkitu ditugu:

- Gaztelaniaren interferentzia maila. Herri bietan daude gaztelaniatik hartutako hitzak eta esaerak, baina, Bermeon Lekeition baino erdarara jotzeko joera handiagoa dago, laginean antzeman den legez. Lexiko mailan, modu antzekoan sumatzen da gaztelaniaren eragina, esaldi mailan, aldiz, Bermeon gehiago erabiltzen da.
- Bai bermeotarrek bai lekeitiarrek euskalkia maite dute, eta euskara batua – diskurtso osoan edo gehienez zehar – apenas erabiltzen dute. Eredu batua artifiziala eta faltsua iruditzen zaie; beraien esanetan, naturalagoa da gaztelaniaz hitz egitea, euskara batuaz berba egitea baino.
- Euskara batuaren eraginak gero eta presentzia handiagoa dauka bai Bermeoko, bai Lekeitioko gazteen artean, baina, eurak ez dira horretaz jabetu. Euskalkian hitz egiten dutenez, uste dute ez daudela euskara batuarekin kutsatuta, baina oker dabilta.
- Euskararen erabileran eragiten duten faktoreei erreparatuta, adina eta familia dira herri bietan eragile nagusienak. Batetik, bai Bermeon bai Lekeition, adinean zenbat eta gorago, euskara gehiago eta zainduago egiten dute; gazteek, aldiz, gero eta gutxiago eta kutsatuago. Bestetik, nabarmena da, herri bietan, familia erdalduna eta familia euskalduna daukatenen arteko aldea, euskararen kalitateari eta kantitateari dagokionez. Dena den, Lekeitioren kasuan eragile biek antzeko pisua daukate, baina, Bermeoren kasuan, familiaren jatorriak eragin

handiagoa dauka. Era berean, Lekeition ikastetxeen arteko aldea sumatzen den heinean, Bermeon faktore horrek ez du eragin berezirik.

- Gazte bermeotar zein lekeitiar gehienek ez dute hartzen sexua euskararengan eragiten duen faktoretzat.
- Kultura-kontsumoari dagokionez, oro har, joera handiagoa dago telebista, musika, prentsa/liburuak erdaraz ikusteko/entzuteko/irakurtzeko, bai Bermeon bai Lekeition.
- Bermeon zein Lekeition, euskalduntasuna eta abertzaletasuna oso errotuta daude. Hala, herri bietako gazte guztiak daude euskara sustatzearen alde, nahiz eta guztiek ez duten berdin praktikan jartzen.

7. Eranskinak

1. Eranskina: hiztunen fitxak

1. EZTABAIDA-TALDEA:

Izen-abizenak: A. I. C.

Adina: 22

Jaioterria: Bermeo

Amaren jaioterria: Bermeo

Aitaren jaioterria: Bermeo

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama					X (ulertu bai)
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean			X		
Bizimoduan		X			

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: A. E. E.

Adina: 22

Jaioterria: Ordizia (Bermeon 16 urte daramatza)

Amaren jaioterria: Eibar

Aitaren jaioterria: Tolosa

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama				X	
Aita					X
Zuk	X				
HITZ EGIN/ ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean				X	

Bizimoduan			X		
------------	--	--	---	--	--

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: A. O. M.

Adina: 23

Jaioterria: Bermeo

Amaren jaioterria: Plentzia

Aitaren jaioterria: Gernika

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama				X	
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean				X	
Bizimoduan			X		

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: B. B. B.

Adina: 22

Jaioterria: Bermeo

Amaren jaioterria: Bermeo

Aitaren jaioterria: Bermeo

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama	X				
Aita			X		
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean		X			
Bizimoduan	X				

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: O. U. M.

Adina: 22

Jaioterria: Bermeo

Amaren jaioterria: Bermeo

Aitaren jaioterria: Bermeo

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama		X			
Aita					
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean		X			
Bizimoduan		X			

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

2. EZTABAIDA-TALDEA:

Izen-abizenak: B. B. A.

Adina: 25

Jaioterria: Bermeo

Amaren jaioterria: Bermeo

Aitaren jaioterria: Txile

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama				X	
Aita					X
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean				X	
Bizimoduan			X		

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: A. S. B.

Adina: 22

Jaioterria: Bermeo

Amaren jaioterria: Bermeo

Aitaren jaioterria: Bakio

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama	X				
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean	X				
Bizimoduan			X		

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: G. A. R.

Adina: 22

Jaioterria: Bermeo

Amaren jaioterria: Bermeo

Aitaren jaioterria: Munitibar

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama	X				
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean	X				
Bizimoduan		X			

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: I. L.

Adina: 22

Jaioterria: Bermeo

Amaren jaioterria: Gernika

Aitaren jaioterria: Bermeo

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama	X				
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean	X				
Bizimoduan		X			

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

Izen-abizenak: J. B. B.

Adina: 23

Jaioterria: Bermeo

Amaren jaioterria: Bermeo

Aitaren jaioterria: Gernika

HITZ EGITEKO GAITASUNA	Oso ondo	Ondo	Erdipurdi	Nahiko gaizki	Gaizki
Ama	X				
Aita	X				
Zuk	X				
HITZ EGIN/ERABILI	(la) beti euskaraz	Gehienbat euskaraz	Bietan berdintsu	Gehienbat erdaraz	(la) bat ere ez
Etxean	X				
Bizimoduan	X				

Euskara sustatzearen alde zaude?

Erabat alde	Nahikoa alde	Ez oso alde	Bat ere ez	Ez zait axola
X				

2. Eranskina: galdetegia

Bai Bermeon, bai Lekeition galdera berberak egin zaizkie eztabaida-talde guztiei, hau da, herri bietan galdetegi berbera erabili dugu. Izan ere, bata bestearekin alderatzeko ezinbestekoa da partaide guztiek itaun berdinak erantzutea. Beraz, galdetegiaren eranskin biak atxiki beharrean, bakarra jarriko dugu herriaren izena agertzen den tokian Bermeo/Lekeition izendatuta.

1. *Bermeoko/Lekeitioko euskara*

- *Beste herri batzuekin alderatuta, zer iruditzen zaizue Bermeoko/Lekeitioko euskara? Kalitate aldetik? Kantitate aldetik?*
- *Eta Bermeoko/Lekeitioko gazteen euskara?*

2. *Euskara Bermeon/Lekeition*

- *Bermeon/Lekeition denek berdin hitz egiten dutela uste duzue?*
- *Zaharren, helduen eta zuen artean zer desberdintasun ikusten duzue? Gertatzen zaizue zaharrek hitz bat esan eta zuek ez ulertzea? Eta alderantziz?*
- *Kantitatean edo kalitatean ba al da desberdintasunik sexuaren, adinaren edo eskolaren arabera? (Horrelako galdera generiko eta orokorra botako nuke eta beraiek seinalatu dezatela zeintzuk diren beraien ustez aldagairik garrantzitsuenak).*
- *Zer iruditzen zaizue, erdarak zuen hizkeran eragina daukala? Eta euskara batuak?*
 - *Ez badute askorik zehazten: Eta nolakoa da erdararen eragina? Hitz solteak sartzea, esaldi osoak txertatzea, bi hizkuntzak nahastea....?*
- *Gaztelaniara jotzeko arrazoiak zeintzuk izaten dira*

3. *Euskara etxean*

- *Etxean nola egiten duzue?*
- *Etxean ezer zuzentzen dizuete?*

- Ze desberdintasun dago etxean erdaraz eta etxean euskaraz egiten duten gazteen erabilera-proportzioen eta hizkeren artean?

4. Euskara lagunartean

- Zuen artean (lagunartean) nola egiten duzue?
- Zuen adineko neska euskaldunek eta mutil euskaldunek berdin egiten dute euskaraz? Edo aldea dago?
- Sare sozialetan nola idazten duzue?
 - Erantzunen arabera: Batuan idazten badakizue, zergatik ez batuan idatzi?
- Bermeokoak/Lekeitiokoak ez diren lagunei ere bermeotarrez idazten diezue?
- Beste herri batekoekin hitz egitean zer sentrazio izaten duzue? Ulertzen zaituztete? Eta zuek haiek?
- Beste herriekin alderatuta, zer iruditzen zaizu Bermeoko/Lekeitioko gazteen euskara kalitate nahiz kantitate aldetik?
- Nola erabiltzen dituzu batua eta euskalkia lanean, hitz egitean, idaztean, Whatsappetan, sare sozialetan....? Zergatik?
- Euskalkiak erabiltzeko arrazoiak zeintzuk izaten dira?
- Gaztelaniaz hitz egiten duzu batere? Harremanak egiteko nola sentitzen zara erosoan, euskaraz ala gaztelaniaz? Erdaldun zein euskaldunekin berdin egiten dituzu harremanak?

5. Kultura-kontsumoa

- Musika zer hizkuntzatan entzuten duzu? Irratia?
- Telebista zer hizkuntzatan ikusten duzu?
- Zer hizkuntzatan irakurtzen duzu (liburuak, egunkariak, aldizkariak ...)?

8. Bibliografia

- Amonarriz, K. Gazteen euskara erabilera: hizkuntza kalitatea. HIZNET Hizkuntza Plangintza Unibertsitateko Espezialista. Donostia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Amonarriz, K. (2008): Gazte Hizkerak - Hizkera Gazteak. Bat, 68. 167-183.
- Aranguren Zubimendi, M. (2012). "Azpeitiako gazteak eta euskara". HIZNET 11-12ko sakontze egitasmoa.
- Muñoa, I. Zergatik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean? Bat, 42. 53-63.
- Zuazo, K. (2000). Euskalkiak euskararen dialektoak. Elkar. Donostia.

- <http://eu.eustat.es/>
- www.bizkaiera.net